







**Bi hilabeteren ondoren, mobilizazioek indartsu jarraitzen dute Frantziar Estatuan**

# Behera Macronen gobernu!

FERNANDO SETIÉN  
*Esquerra Revolucionaria  
Bartzelona*

Burgesiaren komunikabide handien isiltasunaren, mespretxuen eta manipulazio informatiboaren gainera, bi hilabeteren ondoren indartsu jarraitu du aurrera Emmanuel Macronen eta honen pentsio erreformaren aurka langile klase frantsesaren altxamenduak; herrialdearen historiako greba luzeena egitera iritsi da.

## Gobernuaren ahulezia eta maniobrak

Urtarrilaren 9 eta 11ko mobilizazio orokorrek kalean milaka eta mila pertsona batuz eman zioten urteari hasiera, eta sektore gehiago ere gehitu ziren borrokara. Macron presidentek, ikaragarri ahulduta eta bere ospea legealdia hasi zenetik erdia baino gehiago erorita —2017 ekaineko %57tik gaur egungo %25era, *Le Figaro* egunkariak argitaratutako zundaketaren arabera— hilaren 11an erasoaren ardatzetako bat “behin behinean” atzera botako zuela iragarri zuen: 64 urtera igotzea pentsioen 100% kobratzeko gutxieneko adina, egungo 62 urteetan utzi.

Era berean, Edouard Philippe bere lehen ministroaren bitartez gutun bat bidali zien eragile sozialei, finantzaketa konferentzia bat antolatzea proposatuz Gobernua, patronala eta sindikatuen artean. Adierazten zenez, horren helburua zen 2027ra begira pentsio sistemaren oreka ahalbidetuko duen finantzabide alternatibo baterako formula bilatzea izango, hau da, “guztien artean erabakitzea” 12.000 milioi euro nola aurreztu pentsioak jaitxi gabe eta, batez ere, patronalaren kotizazioak gehitu gabe. Apirilera arteko elkarriketa mahaia proposatzen zen eta bertako ondorioak parlamentuan legea onartzeko

azken tramitean sartzeko aukera irekitzea, ekainerako aurreikusia.

Bide batez, horrela, martxoko udal hauteskundeek begira, bere burua babestu nahi du Macronek, gatazka soziala “bare-tutz”; izan ere, Errepublikak Martxan bere alderdiarentzat porrot latza izan daitezke.

Atzera pauso hau mugimenduak duen ikaragarriko indarraren, gobernuaren ahuleziaren eta borroka hau irabazteko aukeraren adierazle bada ere, komenigarria da oharretan horren gutziaren atzean denbora irabazteko maniobra bat dagoela. Bere helburu nagusia mobilizazioak desaktibatzea da, langileak kaletik atera eta zuzendari sindikalak, batzuk behintzat, murrizketetan esku har dezaten lortzea da, beraien oinarri sozialaren aurrean zigoritasuna galtzeko. Laurent Bergerrek, CFDTko buruzagiak, dagoeneko onartu du eta greba gaitzetsi du, eta gauza bera egin du UNSA ere. Hori bai, akordiorik ez badago “Gobernuak bere ardurak bere gain hartuko ditu”.

Hori ulertu dute langileak, eta tinko mantendu dira, babes sozial ikaragarriarekin. Azken asteetan sektore berriak batu dira mobilizazioetara: portuetako zamaletari eta langileak, lanbide liberalak, sektore pribatuko langileak, hondakinen tratamenduetako langileak, ikasleak, etab. Horrek bultzada eman die lehenengo egunetik borrokan dauden langileei. Langile batek indartsu zera zioen: “Jendeak ez du egiten 68az geroztik luzeena den greba amore eman eta atzera pauso bat emateko. Bukarerraino joango da”. Beste batek hau baieztatzen zuen: “Ez dugu datorren belaunaldia sakrifikatuko duen belaunaldia izan nahi.” CGTren erresistentzia kutxa urtarileko hirugarren astean 2 milioi eurora iritsi zen eta BVA enpresaren galdeteka baten arabera, herritarren %70ak greba babestu ez ezik, borroka jarraitu egin behar duela uste du.

## Ministroen Kontseiluak erreforma onartzen du, langile klaseak mobilizazioarekin erantzun

Macronen kontzesioek egoera baretzetik urrun, langile klase eta gazteria beren indarrean konfiantza gehiago izatera bultzatzen ditu, eta borroka metodo baliagarriak batortzea, pentsioen kontraerreforma gaitzestez gain azken urteetan lan, gizarte eta eskubide demokratikoetan egindako murrizketa eta atzerapenak indargabetzea, osasunean, hezkuntza eta garraio publikoan inbertsio handiagoak egin daitezkeen borroka eta pribatizatutako sektore guztiak berriro nazionalizatzea eta monopolio handien eta bankuen nazionalizazioa exigituko duena

Frantziar estatuko langile klasearen garaipena Europako eta mundu osoko langile klasearentzat pizgarri izango litzateke.

Frantziar estatuko langile klasearen garaipena Europako eta mundu osoko langile klasearentzat pizgarri izango litzateke.

## EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

osasuneko, lan inspektzioko, irakaskuntzako eta beste hainbat sektoretako langileak borrokara erakarriz.

Jardunaldi hauetako elementu esanguratsu bat CFDTko langileek manifestazioetan egindako oihuak izan ziren. “Hemen gaude, hemen gaude, Bergerrek nahi ez badu ere, oinarria hemen dago”. Argi utzi zuten ez zituztela onartzen beraien zuzendarien politika eskirolak. Egun batzuk lehenago RATPko (Parisko metroko eta hiriko garraioak) eta SNCFko (trenbideak) grebalariak CFDTko egoitza nagusira sartu ziren Bergerri beraien ordezkaria ez zezan jakinarazteko. Bizi den giroaren adierazle esanguratsuak dira.

### Macron bota arteko greba orokor mugagabe baten alde

Bistakoa da langileen determinazioa frogatuta gelditu dela. Egunero daude protestak, urtarrilaren 29ko greba egunean ere manifestazio jendetsuak izan ziren, eta urtarrilaren 30 eta 31ko eta otsailaren 6an mobilizazioak aurrera jarraitu du. Baina langileak ezin dute betirako greba eta manifestazioak egiten egon. Borrokaren momentu erabakigarrian gaude.

Garaipena lortzeko baldintzak horixe daude. Agintari sindikalek ezin diote Gobernuari arnas gehiago eman, Gobernuak behar botatzea da helburua, eta CGTko buruzagiak arduraren osoa dute horretan. Ez da nahikoa “greba gehiago” egitera deitzea. Mahai gainean borroka plan koordinatu bat ezarri behar da, langileak ekintzetan erakusten ari diren indarra batu eta zabaltzeko gai izango dena. Macron kanpora bota arteko greba mugagabe bat antolatu behar da, horretarako bitarteko guztiak ipiniz.

Plan honek fabriketan, lantoki eta ikastetxe guztietan, auzo eta herrietan komiteak antolatzea eta koordinatzea ahalbidetu behar du, aldarrikapen plataforma bat sortzea, pentsioen kontraerreforma gaitzestez gain azken urteetan lan, gizarte eta eskubide demokratikoetan egindako murrizketa eta atzerapenak indargabetzea, osasunean, hezkuntza eta garraio publikoan inbertsio handiagoak egin daitezkeen borroka eta pribatizatutako sektore guztiak berriro nazionalizatzea eta monopolio handien eta bankuen nazionalizazioa exigituko duena

Frantziar estatuko langile klasearen garaipena Europako eta mundu osoko langile klasearentzat pizgarri izango litzateke.



## EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

## Errepresio erasoaldiaren eta Governaren hausturaren aurrean

# Nola jarraitu Kataluniar errepublikaren aldeko borroka?

### ESQUERRA REVOLUCIONARIA

Kataluniako Parlamenteko lehendakariak (Roger Torrent), gainontzeko ERCko buruekin batera, Quim Torra diputatu kargutik inabilitatu izana onartu zuten urtarrilaren 27an. Preso politikoak askatzeko eskatuz pankarta bat jartzea da Hautets-batzorde Zentralak (JEC) eta Auzitegi Gorenak Torrari egotzirik “delitua”. U-28an JxCat eta ERCren Governaren haustura ofizial egin zen eta Generalitateko lehendakariak berriro hauteskundeak deituko dituela iragarri zuen.

Hautets-batzorde Zentralaren eta Auzitegi Gorenaren ebazpenak erregimen diktatorialen neurriko erasoak dira adierazpen askatasunaren aurka. Goi-epaileak eta Estatu aparatuen beste erakunde batzuk mendean dituen eskuin espainolistaren estrategiaren parte dira, hauteskontzietan lortu ezin izan dutena neurri errepresiboan bidez lortzeko. Erreakzioaren erasoak helburu bikoitza du: Kataluniako errepublikaren aldeko masen borroka ahuldu eta PSOE-Unidas Podemos koalizio gobernu higitu, “elkarriketa” bide oro saboteatu.

Halako erasoaren aurrean, ERC eta JxCateko buruek uko egin diote kaleko borroka erantzuteari. Parlamentean gehiago independentistaren buruzagitza eskuratzeko lehia gogorra mantendu arren, bi erakundeak ados daude honetan: 2017ko urriaren 1 eta 3an piztu zen krisi iraultzaile itzali nahi dute.

### Estrategia errepresiboaren porrota, mugimenduen auzardia eta indarraren aurrean

Errepublikaren aldeko borroka erantzuteko burgesia espainiarrek (eta katalanak) erabili dituen epai, kartelazartze eta erberastate guztiak parez pare talka egin dute mugimenduen auzardiaren eta indarraren aurrean.

Azken bi urteetan diktadura frankistaren amaieratik izan den masen mugimendu handiena gauzatu du Kataluniako herriak, eskubide demokratikoen alde eta 78ko erregimen monarkikoaren aurka. Komunikabide espainiarrek isilarazi nahi arren, pasa den urrian herri altxamendu izugarria izan zen; egunero milaka eta milaka lagunek kaleak bete zituzten. Poliziaren errepresioa ez zen gai izan gazteria izutzeko, eta urriaren 18an greba orokorrak Katalunia geldiarazi zuen, eta manifestazioetan 2 milioi baino gehiago pertsona batu ziren.

Gertakari horiek burgesia espainiarra eta katalana beldurtu zuten. Kriminallizazio kanpaina basati batekin erantzun zioten, badakitelako masen gero eta sektore zabalagoak ondorio aurreratuak ateratzen ari direla. Masen mobilizazioaren bidez sortutako Kataluniako errepublika kolpe erabakigarria litzateke 78ko erregimenarentzat. Zaila litzateke, honelako garaipen baterako gai den herriak onartzea murrizketak, austeritatea eta errepresioa

ber horretan jarraitzea. Honela lortutako Kataluniako errepublikak klase arteko borroka eraso oso gogorra irekiko luke, eta Kataluniaren eraldaketa sozialistaren ideiak indarra hartuko luke espainiar Estatu eta Europako gainerako langileak inspiratuz. Horregatik, nahiz eta espainiar, kataluniar eta europar burgesien artean ezberdintasun taktikoak egon, guztiak bat datoz potentzial iraultzaile oso arriskutsu bat duen mugimendu hau errotik kentzeko premian.

Azaroaren 10eko hauteskundeek, langile klaseko sektore zabalek eta gazteriek erreakzio espainolistari bidea ixteko borondatea dutela islatu zuten, baita Kataluniako herriaren aurkako errepresioari uko egiten diotela ere. Cs desagertzeak eta PPK Voxen aurrean izan duen ahulitzeak eskuinak babestutako PSOEren gobernu baterako edozein aukera itxi zuten, Pedro Sanchezen hauteskunde deialdiaren helburuetako bat zena. Horri bere hautesleek PSOEko buruzagiei bidalitako mezua gehitu zitzaion: bi eserleku galdu eta 900.000 boto gutxiago lortu zituen estatu osoan (Katalunian, 171.675). Espainiako banderari biltzeko saiakerak, Cs eta PPrekin lehiatu nahian, porrot egin zuen nabarmen. Horrek Pedro Sanchez 180 graduko bira ematera behartu zuen, Unidas Podemosekin gobernu akordioa bilatuz eta ERCrekin ituna eginez.

### PSOE-ERC ituna

ERCko buruzagiak PSOEekin egin duen akordioa justifikatzen saiatzen ari dira, PP-Vox-Cs Gobernuaren eragozteko aukera bakarra zela esanez. Baina ERCren ekinbidea Sanchezen inbestidura eratzeko abstentzetik askoz harago dago. Epe luzeko estrategia bat garatzen ari dira, eta milaka eta mila pertsonak bozkatu zutenaren kontrakoa dute helburu: errepublika behin betiko lurperatzea, autonomismoaren bidera eta Espainiako burgesiarrekin negoziatzera itzultzea.

ERCko buruzagiek beren estrategia- lortu nagusi gisa aurkezten dute gobernuarekin hitzartu duten Kataluniar buruzko elkarriketa mahaia. Pedro Sanchezek mahaia hori Kataluniako hauteskundeak igaro arte atzeratuko zela zioen iragarpena zuzendu zuen arren, PSOEek eta Unidas Podemosek oso argi utzi dute autodeterminazio eskubidea eta errepublika lerro gorriak direla eta ez direla aintzat hartuko.

Berez, galdera oso konkretua da. Inork pentsatzen al du horrelako mahaia batek Kataluniako herriaren erabakitze eskubidea ase dezakeela, edo 2017ko urriaren 1eko erreferendumean bi milioi baino gehiagok alde bozkaturako Kataluniako errepublika onartuko dutela? Mahaia honen helburua denbora irabaztea eta “indar korrelazioak” gehiagorako ez duela ematen dioten mezua zabaltzea da. Hori da ERCko buruzagiek behin eta berriz errepikatzen dutena, mugimenduak urte hauetako ahalgina apaldu eta agortzeko asmoz. Baina, berez, indar korrelazioa errepublikaren aldeko borroka erantzuteko auzardia da. Faltza dena programa iraultzaile bat altxatuko duen eta hori posible egiteko estrategia planteatuko duen zuzendaritza politikoa da.

### Errepublikaren aldeko borroka erantzuteko iraultzaile batenkin

Prozesu hain dinamiko batean perspektiba modu itxi batean tratatzea arriskutsua da. PSOEek eta Unidas Podemosek Gobernuaren sendotu nahi dute, eta ERCren babesa bermatzeko presioa egiten ari dira. Kataluniako Gobernuan hirukote berri baten ideia, ERC buru, PSC eta En Comu Podemosekin batera, oholza gainean dago. Horregatik erantzun dute Torrak eta Puigdemontek taktika horrekin, hauteskunde deialdia atzeratuz, ERC higitu ahal izateko eta Junqueras, Torrent eta Rufian bloke independentistaren hausturaren erantzule bezala

azaltzeko. Pentsatzen dute horrela hauteskundeetako emaitza ahalik eta ondoren mantendu ahal izango dutela. Maniobra horiek irekita daude, eta ERCK ere kontraeraso jotzera behartuta ikusiko du bere burua.

Mugimendu horiek guztiak sakonko presio izugarria islatzen dute: Katalunian milioika lagunek 78ko erregimenarekin haustea erabaki dugu, eta ez diogu uko egingo helburu horri. Borroka hau jarraitzeko eta garaipena lortzeko gako alternatiba iraultzaile bat altxatzea da, ezker sozial eta politikoa bateratuko dituen, errepublikaren alde modu irmoan borrokan ari garen milaka eta mila gazte eta langileen indarrak elkartuko dituen. Horrela egin behar diogu aurre kapitalismoaren ondoren eta masa mugimenduen ondoren parlamentarioekin desegin nahi duten eskuin katalanistaren eta sozialdemokraziaren agintariei.

Askapen nazionalaren aldeko borroka gizartearen eraldaketa sozialistari lotu behar zaio, ekonomiaren, bankuen eta monopolio handien oinarriko palankak nazionalizatuko dituen errepublika katalan sozialista bat defendatuz: murrizketekin, etxebizitza publikoen gabeziarekin, prekaritatearekin, soldata miserabilekin, indarkeria patriarkalarekin eta ingurumenaren suntsiketarekin amaitzeko.

Errepublika sozialista bat nahi dugu, Kataluniako Gobernuaren politika pribatizatzaileak deuseztatuko dituen, Kataluniako oligarkia eta haren politikariaren eskuetatik boterea erazutuko duena, eta justizia soziala konkistatuko duena. Bandera honekin Kataluniako zapaldu guztien babesa irabaziko genuke Errepublikaren eta sozialismoaren aldeko gudan, eta zubi bat ezarriko genuke Estatuko gainerako gazte eta langileekin borroka komun bat emateko. Hori da oinarri demokratikoen gainean zapalkuntza nazionalarekin amaitzeko bide bakarra.





EAJ euskal patronalaren alderdia da Badugu indarra kanpora botatzeko!

# Greba Orokorrak erakusten du bidea

## EDITORIALA

Greba Orokorretik hamaika egun besterik ez ziren igaro, Urkullu korrika ateraz zenean EAEko hauteskundeak apirilaren 5era aurreratzera. Indartsu agertzeko asmotan egin zituen diskurtso guztiak, "legegintzaldia ahituko zuela" esanez edo urtarilaren 30ean bertan greba orokorra "erabateko porrota" izan zela adieraziz, justu kontrakoan bihurtu dira: erabat agerian utzi dute euskal burgesiaren duen urduritasuna eta langile klasearen mobilizazioak indartzearen dion beldur izugarria.

## U30aren erabateko arrakasta

Urtarrilaren 30eko greba orokorrak ez bairik gabeko arrakasta izan zuen. Nahiz eta klase agintariak boikot informatibo eta amorruko gezur eta manipulazio kanpaina egin —Euskal Herrian nahiz Estatu mailan—, errealitateak ez du zantalzarik uzten: goizeko manifestazioetan 145.000 pertsonak bete zituzten kaleak, gehiengo sindikalak deituriko beste grebeto kopuruak ia bikoiztera iritsiz: 73.000 2009an eta 85.000 2013an. Pentsionistek, gazteek eta langileek indarrak batu zituzten eta argi utzi zuten langile klaseak daukan indar ikaragarria eta ofentsibari ekiteko duen gaitasuna prekaritatearen, murrizketen eta errepresioaren aurrean.

1.500 enpresa baino gehiago batu ziren grebara. Industria handiko langileek praktikan Gipuzkoa guztia geratu zuten, Nafarroako ipar ekialdea eta Bizkaia eta Arabako eskualde zabalak. Pasaiko eta Santurtziko portuak jarduera minimoan aritu ziren, eta garraioa, zerbitzu eta hainbat sektore —publikoan nahiz administrazioak pribatizatutakoetan— partzial-

ki funtzionatu zuten, erabat gehiegizko ziren gutxieneko zerbitzuen inposaketaren bidez. Adibide bat jartzearen, Eusko Jaurlaritzak hezkuntzaren jarraipena %48an zenbatu zuten, eta esan zuten akats informatibo baten eruztaren %48a bakarrik zenbatu zuela.

Argi dago gehiengo sindikalak deituriko azken greba orokorretik igaro diren 6 urte eta erdiak ez direla alferrik izan. Azken urteetan Euskal Herrian gorakada nabarmena izan da borroka, greba eta lan gatazketan, prekaritatearen eta patronalaren nahiz Eusko Jaurlaritzaren erasoaren aurka. Hori funtsezkoa izan da gehiengo sindikalaren zuzendaritzek EAJren aurrean konfrontazio irekiko jarrera hartzeko orduan —bereiziki ELAren kasua—, greba orokor honetan begi bistan geratu dena eta inflexio puntu bat markatzen duena.

Greba orokorrekin borrokak elkarrearen ideiak grina berezia eragin du. Abendutik 170 greba komite sortu dira lau herrialdeetako hiri, auzo eta herrietan. Bizkaiko metaleko langileak, pensionisten mugimenduak, emakumeenak eta klima aldatzeko aurkako gazteriaren mugimenduak —estatu mailan erreferenteak izan direlarik— eman dioten bulkadak garrantzia bizia izan du.

## Kaleko mobilizazioak EAJren benetako aurpegia agerian uzten du

Alde guztietatik urtarilaren 30aren eragina isilarazten saiatu badira ere, hauteskunde aurrerapen hau izatez kalean dugu indarraren aitortza bikaina da. EAJk gehiengo egonkortu nahi du parlamentuan PSERekin batera, berandu izan baino

lehen; hau da, mobilizazioak bere agintea arriskuan jarri baino lehen.

Otsailaren 10ean bertan, ordea, Urkullu Jaurlaritzaren desegitea iragartzeko bitartean, milaka gazte eta langile Zaldibarrera begira geunden samin eta haserrez beterik, euskal eskuinaren ereduak eragiten duen desastrea modurik gordinean ikusten: aurtun Euskal Herrian 13 langile erail dituen lan prekaritateak; irabazi ekonomikoak pilatzeko eskrupulurik gabe gure ingurumena eta osasuna suntsitzea; zerbitzu pribatizatuen ustelkeria politikoa eta hori modu lotsagarriean estaltzen saiatzea... Eusko Jaurlaritzaren demagogiak ez du amaierarik. Ez da "euskal oasis" existitzen, kapitalismoak Euskal Herrian uzten duen amesgaiztoa baizik.

EAJ bide guztietatik saiatu da iritzi publikoaren aurrean aukera aurrerakoiago gisa agertzen, Voxen aurka hitz batzuk esanaz edota feminismoaren, ekologiararen edo pentsiodunen defendatzaile dela adieraziz. Euren propagandaren eta hipokrisiaren faltsukeriak ez du amaierarik. De Migueleñ kasuaren epaia eta Darponen dimisioa behartu zuten osasun arloko oposizioen iruzurra, jeltzaleen eta enpresariaren artean eraikitako ustelkeria egitura oso baten erakusgarri baino ez dira. Mozal legea aplikatzen lehen postuan daude, erakunde feministen aurkako isunek edota greba orokorreko errepresioak erakusten duten moduan. Urkulluk sexuz bereizten dituzten Opus Deiko ikastetxeetara egindako bisiten atzean, hierarkia katolikoari aurtun emandako 608,7 milioi euroak daude, bere eskola pribatu-itundua finantzatzeko. Zubietako eraustegia ire-

kitzea edo AHTaren lanak ekimen ekologiko gisa saltzea, jeltzaleen "politika berdeen" eta maila guztietan paparrean daramatzen hipokrisiaren eredu dira.

## Elkarrekin Podemos, EAJ eta PSOE-UP Gobernua

Abenduan, Elkarrekin Podemoseko zuzendaritzak EAJrekin aurrekontuak adostu zituen, partida sozialetarako kopuru guztia %1,7ko huskeria negoziatzearen truke. Eskuineko aurrekontuak ziren, baina ezkerrean sinadurarekin: orain arte Eusko Jaurlaritzatik aplikatu diren pribatizazio eta murrizketa politika berberak mantentzen zituzten, adibidez, DSBERekin. Benetako oparria zen euskal eskuinarentzat, egonkortasun politikoa bermatzeko eta ezkerretik bermatutako usteko progresismo batekin aurpegia garbitzeko erabil zezan.

Hortik aurrera, Elkarrekin Podemosen zuzendaritzak U30eko greba orokorraren aurka agertu zen, CCOO eta UGTko zuzendaritzek egin duten bezala, koalizio gobernu berriari "konfiantza tartea" eman behar zitzaioela planteatu. Hori akats izugarria da eta ezkerrean indarrak zatitu eta ahuldu besterik ez du egiten.

Greba hau ezkerreko gobernu baten aurkako zela eta praktikan eskuinari egiten ziola mesede planteatzen zuten argumentua guztiz faltsua da. Greba hau oso egokia zen, EAJ euskal eskuinaren aurkako, bere pribatizazio eta murrizketa politiken aurkako. Rajoy eta Zapateroren gobernuen eraso eta kontra-erreformak desegitea planteatzen zuten eta kalean

urteetan zehar defendatu ditugun aldarrikapenak jarri ditu mahai gainean.

Ezin dugu ahaztu mobilizazio prozesu hori izan dela Madrilgo Gobernutik eskuina botatzea posible egin duena. PSOE-UP koalizio gobernu ez zen kapitalisten apustua. 2011n hasitako mobilizazio handien prozesuak eragin du taula politikoa iraultzea eta izaera horretako Gobernu bat eratzea. Baldintza horietan burgesia klase arteko borrokan garapenak inposatu dion egoera kudeatzen ari da. Eta ez du aho batez egiten.

Vox eta PPK klase agintariaren eta estatutu aparatuko sektore zabal baten alde egin eta argi utzi dute ez dutela ez-etenik emango. Bere jomugan langile klaseak, emakumeen mugimenduak eta gazteriak konkistatutako eskubide demokratiko eta sozialak daude.

EAJk, aldiz, PSOE-UP koalizioa esku zabalik hartu zuen, lehenik eta behin Madrilgo Parlamentuaren egonkortasuna bermatzeko. Trukean hainbat kontu exijitu ditu, besteak beste, bere aurrekontuei babesa ematea eta BBVak eta Bankiak bat egitea erakunde Naguriko kapitalisten kontrolpean jartzeko.

PSOE-UP Gobernuaren lehen neurriak —pentsioak %0,9 igotzea, funtzionarioei soldata %2 igotzea eta gutxieneko soldata 950 eurora igotzea— oso urrun daude Pedro Sanchezek eta Pablo Iglesiasen sinatutako akordioan jasotako helburu apaletatik ere. Gobernuak uste badu bidea dela erreazio ez probokatzeko agindutako programari uko egingez edo "pixkanaka" joatea bake soziala bermatzeko, klase arteko borrokak zaplazteko ederra emango die. Egoera nabarmen aldatzeko benetako neurriak hartzea ezinbestean austeritatearekin haustea eta kapitalisten eta haien nazioarteko erakundearen aurka irmotasun ez aurre egitea eskatzen du.

## Apirilak 5: euskal patronalaren alderdia kanpora botatzeko Ezkerreko oposizio irmoa behar dugu, parlamentuan zein kaleetan!

Kaleko borrokak eta polarizazio soziala agerian uzten ari dira EAJren benetako izaera. Gobernuan mantentzeko eta bozka irabazteko erabili duen estrategiak, ezkerreko erakundeetan kolaboratzera eta negoziatzerako erakartzea eta bake sozialaren bermatzaile gisa agertzea, talka egin du masen saminarekin eta mobilizazio masibekin. Orain, Eusko Jaurlaritzatik botatzeko aukera dugu, ezkerretik aurrez aurreko oposizio baten bidez, oposizio hori kaleko borrokan eta U30eko grebari jarraipena ematean oinarrituz. Ezin dugu euren tranpan erori eta hauteskunde kanpaina-ekin mobilizazioa alde batera utzi. Kaleko borrokan neurtzen da benetako indar korrelazioa, eta bide horretatik soilik alde ditzakegu gauzak.

Horretarako, beharrezkoa da argi uztea EAJ ez dela gure aliatua inongo gaitan, ezta nazio askapenaren aldeko borrokan ere, euskal estatutu berriaren eztabaida erakusten ari den bezala. Ez zaio autodeterminazio eskubidea interesatzen. Madril presio egin nahi dio bere negoziakoz zabaltzeko: transferentzia gehiago pribatizazio, prekaritate eta ustelkeria gehiago eragiteko. Baina oso ondo daki hori dela oposizioa desegiteko gakoak, eta Ezker Abertzalea presionatuko du alde horretatik. Borroka sozialak estutzen dituen heinean, orduan eta gehiago erabiliko dute euren demagogia erabakitze eskubideak, euskal kulturaz edo Espainiaren aurka hitz eginaz, eta eskua luzatuko diote tranpa horretan EH Bilduri. EAJk behin eta berriz erabili



duen funtsezko estrategia da, eta zori-tzarrez ezkerreko buruzagiek askotan onartu dutena.

Ezker Abertzalea greba orokorra bultzatzean murgildu da, eta ezkerreko posizionamendua hartu du, patronalari aurre egingez eta mugimenduen aldarrikapen sozialak mahai gainean jarri. Jarrera hori azken aldiko borrokan gorakadaren indarrak elikatzen da. Behetik gorako presioaren isla da, eta, aldi berean, aurrerapauso garrantzitsua. EAJk ahal duen guztia egingo du hori geldiarazteko eta bide hori zapuzteko. Horregatik da hain beharrezkoa Ezker Abertzalea eta EH Bildu euskal patronalaren alderdiarekin erabateko konfrontazioan kokatzea —parlamentuan zein kalean—. Euren demagogia guztia agerian jarri eta argi utzi behar da askapen nazionalaren aldeko borrokan ere gainditu beharrek helburua direla, aldarrikapen hori EAJk etengabe erasotzen dien eskubide sozialaren aldeko borrokaekin lotzeko deia eginda. Inoiz ezingo dugu benetako askatasunik eskuratu, modu honetan ez bada. Programa honekin eta estrategia honekin langile klasearen eta gazteriaren babes izugarria lortuko litzateke, datoen hauteskundeetan Eusko Jaurlaritzatik behingoz botatzeko.



borroka, kapitalista handien desjabetzea eta ekonomiararen oinarritzeko palankak langileen kontrol demokratikoan ezartzea. Horrela bakarrik amaitu ahal izango dugu

politika kapitalista guztiak eta mundu osoan zehar hainbestek jasaten ditugun zapalkuntza mota guztiak.



WEB orri berria:  
[www.ezkeriraultzailea.net](http://www.ezkeriraultzailea.net)



# Zaldibar

## EAJren prekaritate, ustelkeria eta kutsaduraren zaborra agerian



Otsailaren 6ko Zaldibarreko zaborte-gi-ko luiziak, EAJk eratu duen egitura politiko ustela azaleratu du, milaka langile eta gazteren haserrea piztuaz. Bi langileren heriotza eragin zuen luizia, ez zen istripu hutsa izan. Iragarrita zegoen tragedia izan da. Urkulluren Jaurilaritzak dena estaltzeko mantentzen saiatu den isiltasun konplizeak ondo baino hobeto erakusten du hori.

EAJk eta enpresariengurumenaren, osasunaren eta gure bizitzaren aurrean duten axolagabekeriak ez du mugarik. Jaurilaritzak bazekien zaborte horretan legez kanpoko irregulartasunak zeudela. Bazekien bertan amiantoa pilatzen zela, baina hondakinak garbitzea joan ziren langilei ez zitzaizkien ez erabateko erabateko lanetan. Inguruan bizi diren 50 mila bizilagunei aste betera esan zitzaizkien, aireko dioxina eta furano mailak onartutakoa baino 40-50 aldiz handiagoak zirela. Lazko udan Urkullu "larrialdi ekologikoaz" hitz egitera ateratu zen. Orain gertatutakoak galdetutakoan, hasieran ez zela bertaratuko esan zuen, arazoarekin zerkusirik edukiko ez balu bezala. Zaborren negozio ikaragarria dago atzean noski, eta horrelako eskandalu guztietan gertatzen den bezala, Mexikon ere emakume mugimenduan oso boteretsua izan da eta gogor borrokatu du gaitz honen aurka. Paty Cruz elkarrizketatu dugu, Libres y Combativasen bozeramailea eta Mexikoko Izquierda Revolucionariako mi-

leci ez zitzaizkien ez erabateko erabateko lanetan. Inguruan bizi diren 50 mila bizilagunei aste betera esan zitzaizkien, aireko dioxina eta furano mailak onartutakoa baino 40-50 aldiz handiagoak zirela. Lazko udan Urkullu "larrialdi ekologikoaz" hitz egitera ateratu zen. Orain gertatutakoak galdetutakoan, hasieran ez zela bertaratuko esan zuen, arazoarekin zerkusirik edukiko ez balu bezala. Zaborren negozio ikaragarria dago atzean noski, eta horrelako eskandalu guztietan gertatzen den bezala, Mexikon ere emakume mugimenduan oso boteretsua izan da eta gogor borrokatu du gaitz honen aurka. Paty Cruz elkarrizketatu dugu, Libres y Combativasen bozeramailea eta Mexikoko Izquierda Revolucionariako mi-

leci ez zitzaizkien ez erabateko erabateko lanetan. Inguruan bizi diren 50 mila bizilagunei aste betera esan zitzaizkien, aireko dioxina eta furano mailak onartutakoa baino 40-50 aldiz handiagoak zirela. Lazko udan Urkullu "larrialdi ekologikoaz" hitz egitera ateratu zen. Orain gertatutakoak galdetutakoan, hasieran ez zela bertaratuko esan zuen, arazoarekin zerkusirik edukiko ez balu bezala. Zaborren negozio ikaragarria dago atzean noski, eta horrelako eskandalu guztietan gertatzen den bezala, Mexikon ere emakume mugimenduan oso boteretsua izan da eta gogor borrokatu du gaitz honen aurka. Paty Cruz elkarrizketatu dugu, Libres y Combativasen bozeramailea eta Mexikoko Izquierda Revolucionariako mi-

► Irakurri artikulu osoa [ezkeriraultzailea.net](http://ezkeriraultzailea.net) web orrian

# Zubietako

## erraustegia gelditu!

EAJ-PSEren Gipuzkoako foru aldundiak Zubietako erraustegia martxotik aurrera erabat martxan jarri nahi du. Milaka izan gara urte-etan zehar kaleetan erraustegi hau ez dugula onartuko ozen oihukatu dugunak. Eraiki izanak eta martxan jartzeak ez gaitu geratuko borroka horretan, orain hasiko baita benetan pozioa botatzen.

Hasteko, erraustegi honek diru publikoaren lapurretara ikaragarria suposatzen du Gipuzkoako herritar xumeentzat. Irabazten ateratzen direnak hori eraiki eta kudeatuko duten hainbat enpresa pribatu izango dira. Gure osasuneari eragingo dituen kalteak ordea askoz larriagoak izango dira. Institutuzioetatik behin eta berriz esan da erraustegiak azken puntako teknologian oinarriturik ez duela arriskurik suposatzen, baina Zaldibarrek argi utzi du egia baino gezur gehiago esaten dutela, axolarik gabe.

Borrokan jarraitu behar dugu, ingurumenarentzat eta inguruan bizi diren pertsonentzat benetako atentatua suposatzen duen erraustegi hau erabat gelditzeko. Otsailaren 29 arratsaldean, hainbat eragile biltzen dituen Gipuzkoako Larreko mahaiak manifestazioa deitu du Donostian. Erraustegia erabat geratu arte!

Borrokan jarraitu behar dugu, ingurumenarentzat eta inguruan bizi diren pertsonentzat benetako atentatua suposatzen duen erraustegi hau erabat gelditzeko. Otsailaren 29 arratsaldean, hainbat eragile biltzen dituen Gipuzkoako Larreko mahaiak manifestazioa deitu du Donostian. Erraustegia erabat geratu arte!



# Ezker Iraultzailea Tolosako

## ihauterietako txoznetan

Aldarrikapenez, mobilizazioz, kontzertuz eta festa giro sanoaz betetzen da urtero Tolosako ihauterietan Euskal Herria plazako txoznagunea. Herriko hainbat eragile sozial elkarlanean batzen gara, gure ihauterietan ezinbestean behar duten gune borrokalaria antolatzen, gazte eta langileentzako egitarau eder batekin.

Aldizkari hau ateratzen dugun kideak hamarkada bat daramagu Tolosako txozna batzordean parte hartzen. Urteetan zehar Tolosako txoznagunetik borroka latza eman behar izan dugu merezi dugun espazioa aldarrikatzeko, eskuinaren, instituzioen, poliziaren eta mota guztietako jazarpenen aurka. Eta hala ere, geure ahaleginik hobereena egin dugu, urtez

urte gune hori geroz eta hobeto janzteko, giroa hobereena sortzeko.

Txosnak kapitalismoak eta enpresari irabazi nahiek inposatu nahi duten festa eredu basatiari aurre egiteko guneak dira, eta aurrera bultzatu behar ditugu, taldeon autogestiorako gune garrantzitsuak izanik. Jaietan ere, borroka da bide bakarra.

Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!  
Laguniez eguztu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!

ezkeriraultzailea@gmail.com • Tel.: 685 708 281  
Twitter: @Ezkeriraultzailea • Facebook: Euskal Herria Sozialista

LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!

Laguniez eguztu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!

Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.

Ekialde Hurbila  
Talka inperialista eta  
klase arteko borroka

► Artikulua [ezkeriraultzailea.net](http://ezkeriraultzailea.net) orrian



# Paty Cruz

## Libres y Combativas-Mexiko:

Mexiko emakumeen aurkako erasoaren eta feminizidioen markak hausten dituen herrialdea da. Aldi berean, nazioartean bezala, Mexikon ere emakume mugimenduan oso boteretsua izan da eta gogor borrokatu du gaitz honen aurka. Paty Cruz elkarrizketatu dugu, Libres y Combativasen bozeramailea eta Mexikoko Izquierda Revolucionariako mi-

litantea. Mexiko Hiriko M8ko Koordinazio taldeko kide ere bada, eta #NoEstasSola kanpainako zuzendaritzan dago.

Apirilean, Ezker Iraultzaileak Gasteizen eta Bilbon antolatutako ekitaldi publikoetan izango dugu hizlari gisa. Horien data, lekua eta ordua [ezkeriraultzailea.net](http://ezkeriraultzailea.net) webgunean zehaztuko dugu.

EHS.- LyC-etik beti defendatu duzue mugimendu feministaren barruan kapitalismoaren aurka borrokatzeko beharra, hori baita emakumeek jasaten duten zapalkuntzaren oinarria, ez bakarrik ageriko indarkeriaren aurrean, baita prekaritatearen, pobrezia-aren eta abarren aurrean ere. Baina sistema hori eraisteko borroka ez da egun batetik besterakoa. Nola egin aurre sistema honetan milioika emakume egunez egun bizi dituzten erasoerik?

PC.- Gizarte kapitalista indibidualtasuna eta segregazioa barnera dezagun ahalegintzen da. LyC-etik ideia horiek hausten dugu: gure armarik indartsuena kolektiboki dugun indarra da, zapalduen arteko elkartasuna, modu antolatuan, ideia eta helburu argiek. Adibidez, ondo dakigu gure herrian ez dela inoiz justiziarik egiten, ez bada presio politikoa bidez eta kalean mobilizatuz, agerian utziz Estatuak, epaileek, auzitegiek eta fiskaltzak duten izatera ustela. Horretarako, kanpaina eta ekintza bakoitza ditugun esku, buru eta gorputz bakoitza mobilizatuz altxatzen dugu, ez bakarrik emakumeenak, baita gizonezkoenak ere.

Brigadak egiten ditugu, indarkeria horren jatorria azalduz, eta horri aurre egiteko

ez zaudela bakarrik erakutsiz; hortik dator gure kanpainarik arrakastatsuenetako baten izena (#NoEstasSola). Langile klasearen eta gazteen belarriek dei egiten diegu beti. Mitinak egiten ditugu plaza publikoetan, eskoletan, metroetan eta ahal den toki guztietan, erreparorik gabe gure borroka edo bistaratu nahi dugun kasua zabaltera jotzen dugu. Gertatzen dena azaltzen dugu eta gurekin batera borrokatzeko deia zabaltzen dugu. Gure jarrera eta lanarekin erakusten dugu feminismoa ez dela gazte batzuen kontua, baizik eta langile klasearen parte izan

daitekeela, dela eta izan behar duela. Horrela lortu genuen desagertutako lankide bat bizirik aurkitzea markatik aparte azkartasunarekin, eta baita Iztapalapak Alkatetzan seriko bortxatzaile bat atxilotzea ere, Mexiko Hirigunean segurtasun gutxien duen eremuakoa bat. Hori oso ezohikoa da, eta borrokari esker lortu dugu.

EHS.- Mugimendu feministaren barruan, batzuek klasearen edukia ezkatatu eta "emakume guztiak" zaku berean sartzen saiatzen dira, guztiak arazo eta interes berberak izango balituzte bezala. Baina Mexiko hori horrela ez dela erakusten duen frogara on da. Langile borroka garrantzitsuak izan dira, non emakumeek lehen mailako papera jokatu duten, gizonezko kideekin batera. Hori azalduko zenuke?

PC.- Mexikon egunero 10 feminizidio egiten dira: erailak emakume langileen alaba gazteak dira, eta bakar bat ere ez dator familia dirudunetatik. Hildakoak langile klasea jartzen ari da eta horregatik esaten dugu matxismoak ez diela guzti berdin eragiten eta ez ditugula baldintza berdinak horri aurre egiteko. Emakume asko hil dituzte ezin izan zutelako etxetik ihes egin, ez zutelako nora joan edo bizirauteko baliabide propiorik ez zutelako. Gure herrialdean feminizidioen aurkako borroka aitzindarietako bat Ciudad Juarezko (Chihuahua) bitimena familiak dira; han hil eta desagertu ziren gehienak iparraldeko mugako makilatze sektoreko langileak ziren.

Ez da izan emakume langileak mobilizatzen diren kasu bakarra. Duela urtebete eskas, 2019ko urtarrilean, langileen benetako altxamendua izan zen Matamorosen, Ta-

maulipasen, beste bastioi batean, non 90 enpresa baino gehiago grebara joan ziren patronalak erretiratutako urteko bonu bat eta soldata igoera bat itzultzeko eskatuz. Greba horietan, batez ere, emakumezko langileak izan ziren protagonista; izan ere, emakumeak izateagatik gutxiago ordaintzen dituzte, eta Estatu Batuetan muga egiten duten enpresa transnaziionalentzat oso erakargarria da hori. Esplotazio izugarriko baldintza horiek etekin eta lehiakortasun handiagoak lortzen dituzte merkatuan, eta, gainera, beti etortzen zaizkigu gure lurraldeetan lanpostuak sortzeko mesedea egiten ditugulako diskurtsoarekin. Borroka horrek berriro erakutsi zuen batasunaren indarra eta grebaren bideragarritasuna gure eskubideak konkistatzeko tresna gisa. Emakume langileek —emakume eta langile izateagatik bi aldiz zapalduak— ekitzen bidetik frogatu zuten hori.

EHS.- Euskal Herrian eta Estatu espainiar mailan azken bi urteetako martxoaren 8an greba orokor feministarako deia egin da, eta egun horiek egun historiko bihurtu dira, manifestazio jendetsuekin. Zer eragin izan du Mexikon? Zer deritzozu aurten grebarik ez egoteari?

PC.- EH eta espainiar Estatu grebak inspirazio iturri izan dira. Eredu bizia dira, eta erakusten dute, ausardiak eta lanaren bitartez, samin eta amorru guztiari kohesioa eman dakiokela. Baina, era berean, erakusten du borroka serio eta irmo batekin bakarrik lor daitezkeela benetako aldaketak, bizi garen zapalkuntza baldintzetan. Gure etsaia handia da baina ez garaiezina, eta, horrela egin behar zaio aurre. Ezin gara jolasean ibili. Emakume kideen bizitza dago jokoan eta horregatik borrokatu behar dugu modu serio eta kontsekuentean.

Horregatik ulertzen dugu aurten grebara ez deitzea akats bat dela. Mugimendua borrokarako indar eta prestutasun handia erakutsi du eta greba orokorra da gure tresnarik onena. Burgesia eta Estatuak pozik daude egiten ditugun ekintzek, baina sinbolikoa izan dezaketen arren, erroari ez badiote erasotzen: ekonomia geldiarazten badugu, mahai gainean jartzen dugu gure boterea. Greba orokor feministarekin mezu oso argia bidaltzen diegu esplotatzen gaituzten enpresaburuei, gure eskubideak mehatxatzen dituen eskuin muturrari, justizia matxistari edo lapurtzen eta kalera-tzen gaituen bankuari: ezere ez du funtzionatzen langile klasearen baimenik gabe, gehiago gara, indartsuagoak gara eta badakigu zuen sistema dela arazoa.

Ofentsibara pasatu behar dugu. Mexikon ezkerrek agintzen du lehen aldiz. Hala ere, gure eskubideak ez dira lortuko batzuen borondate onagatik, ezta aritmetika parlamentarioagatik ere; kaleak betetzen jarraituz eta herri antolaketarekin, parte-hartzea eta kontzientzia zabaltzen jarraituz eskuratuko ditugu. Askok falta da oraindik lortzeko, eta akatsa litzateke arretera jaitea. Lezio hori bera baliagarria da espainiar Estaturako eta PSOEren eta Unidas Podemosen arteko gobernu berriarekin irekitako egoerarentzat.

Paty Cruz: "Mexikon egunero 10 feminizidio egiten dira. Hildakoak langile klaseak jartzen ditu eta horregatik esaten dugu matxismoak ez diela guzti berdin eragiten"





